

## Ageriko bilkura

Donostian, Tabakalerako Kutxa Kultura egoitzan

2021eko urtarrilaren 29an

Batzar-agiria

Donostian, Tabakalerako Kutxaren Kultura egoitzan, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, 2019. urtearen bukaeran eta 2020an zehar hil ziren Juan Antonio Letamendia, Jean-Baptiste Etxarren eta Angel Ibisate euskaltzain urgazleen, Pierre Andiazabal ohorezko euskaltzainaren eta Joan Mari Torrealдай euskaltzain emertuaren hilberri txostenak irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos euskaltzainburuordea, Adolfo Arejita idazkaria, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagrario Aleman Jagon sailburua, Miren Azkarate, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Paskual Rekalde, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren, Miriam Urkia, Xarles Videgain eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Xipri Arbelbide eta Paulo Agirrebaltzategi.

Euskaltzain urgazleak: Koldo Artola, Elena Martínez de Madina, Jose Antonio Mujika, Elixabete Perez Gaztelu, Patri Urkizu eta Luis Mari Zaldúa.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Iñaki Mendizabal Komunikazio eta Irudi arduraduna eta Ibon Usarralde egitasmoen bateragilea.

Ander Aizpurua Kutxa Fundazioaren zuzendari nagusia, Nekane Arzallus Donostiako lehen alkateorde eta Hirigintza Jasangarriko zinegotzi eskuordetua eta Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendaria.

Euskaltzaindiko langileak: Manu Gañan eta Maixa Goikoetxea.

Gaur omenduriko euskaltzainen hainbat senide eta lagun.

Tabakalerako ekitaldia Joxan Goikoetxea musikariak eta Klara Mendizabal abesla-

riak girotu dute. Ekitaldia, Goikoetxeak berak moldatutako Xabier Leteren hitzak dituen *Nafarroako azken erreginak Donapaleun* abestiarekin hasi da.

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak etorririkoak agurtu eta ekitaldiaren nondik norakoak azaldu ditu. Gauzak horrela, gogorazi du ohikoa dela Euskaltzaindiak, urteko lehenbiziko Osoko bilkuraren ondoren, aurreko urtean hil diren euskaltzainak omentzeko ekitaldia egitea. Ondoren, Ander Aizpurua Kutxa Fundazioaren zuzendari nagusiak, Nekane Arzallus Donostiako lehen alkateorde eta Hirigintza Jasangarriko zinegotzi eskuordetuak eta Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariak hitza hartu dute. Guztiek azpimarratu dute joandako euskaltzainek, zeinek bere eremuan, eginiko ekarpena eta euskara biziberritzeko eginiko ahalegina.

Erakundeetako ordezkarien hitzak entzun ostean, J. Goikoetxea musikariak eta K. Mendizabal abeslariak Goikoetxeak moldatutako eta Xabier Leteren hitzak dituen *Jardin bat zuretzat* pieza interpretatu dute.

Ondoren, Jose Antonio Mujika euskaltzain urgazleak irakurri du Juan Antonio Letamendia (Donostia, Gipuzkoa, 1940 – Hondarribia, Gipuzkoa, 2019) euskaltzain urgazlearen hilberri-txostena. Mujikak Letamendiaren ibilbide osoa berrikusi du, baina bere profila labur zehaztu du hitzaldiaren hasieran: “Gaztetan euskaldunduta, emaitza bikainak eskaini zituen euskalgintzan: idazle hasieran; irakasle gero, metodogile trebe; itzultzaile eta ikertzaile ere izan zen neurri batean; eta euskarazko komikigintzan ere ale bikainak eskaini zituen”. Adibide gisa aipatu zituen, besteak beste, euskara ikasteko berak ezarri zuen *Jalgi Hadi* metodoa, *Bakarka* saila –lehen hiru liburuetan Letamendiak egin zituen–, edo Euskaltzaindian eginiko lan eskerga, batez ere, Dialektologia batzordean.

Ondoren, Jean-Baptiste Dirassar ohorezko euskaltzainak idatzitako testua irakurri du J.-B. Coyos buruordeak. Bertan, Jean-Baptiste Etxarren (Donazaharre, Nafarroa Beherea 1928-2020) euskaltzain urgazlearen izena eta izana gogoratu ditu Coyosek irakurri duen hilberri-txostenean: “Euskal ondarea maite zuen, idazle fina zen, euskaraz ala frantsesez berdina trebe, gaztelera ere bai (...) “Euskal Herria zuen maite, eta bereziki Nafarroa. Mugaren bi aldetan txoko gehienak ezagutzen zituen”. Dirassarrek gogoratu du Nafarroako historia jorratu zuela batez ere Etxarrenek: “Ikerketa sakonak akuilatu zituen lehengo bizimoldeez, lehengo lanez eta gainertikoez. Nafar guztien arteko elkartasunaren sustatzaile porrokatua izan zen”. *Herria*

astekarian publikatu zuen artikulu ugari, “biziki interesgarriak”, eta zenbait liburu argitaratu, tartean, *Luzaiden gaindi* (Elkarlanean, 2002-2009).

Elena Martínez de Madina euskaltzain urgazleak Angel Ibisate (Gasteiz, Araba 1932-2020) euskaltzain urgazlearen bizitzako pasadizoak irakurri ditu Tabakaleran. Esan du “gasteiztar petoa” zela, eta “trebetasun eta adimen handiko gizona”. Arabako AEKren sortzaileetarikoa izan zen Ibisate, eta urte askotan Gasteizko Elizbarrutiaren Seminarioko bibliotekari. Orduan hasi zen haren ikerketa-lana, “artxibategiko inkunableen ezagutza izugarria zuela”. “Zehatza eta zorrotza zen datuen bilketa-lana egiterakoan”, adierazi du Martínez de Madinak, eta idatzi zituen artikulu horretan nabarmendu du. Eta artikulu bitxi bat aipatu du: *Fórmula del Juramento en Álava en el siglo XVI (El testimonio de Fray Juan de Victoria)*. Idazlan horretan, Araban erabiltzen zuten zin egiteko euskarazko esamoldea agertu zuen Ibisatek: “Bai, ziertu (Vay çiertu)”. Gainera, eta euskaltzain urgazleak esan duenez, “iturrien ezagutza handiari esker, beste autore batzuen lanak datu berriez hornitu zituen Ibisatek”. Hori bai, hilobira eraman zuen sekretu bat: inori ez zion inoiz esan zergatik ekin zion euskara ikasteari: “Nire sekretua izango da, betiko”, esan zuen hil aurretik eginiko elkarrizketa batean.

Xipri Arbelbide ohorezko euskaltzainari egokitu zaio Pierre Andiazabalen (Urruña, Lapurdi, 1923 - Kanbo, Lapurdi, 2020) apaiz eta itzultzailearen biografia aletzea. Arbelbidek adierazi du garrantzi handia izan zuela meza euskaraz ematearen aldeko mugimenduan: “euskarazko liturgiaren aita izan zen”. Horrela, 3.000 orrialdetik gora itzuli zituen, *Othoizlari* aldizkarian publikatu zirela gehienak. “Pierri zor diogu, besteak beste, eliza guztietan dozena mila aletan zabaldua dagoen *Igandetan Elizan* liburuxka, mezako otoitz eta kantuekin hornitua”. *Lapurdi Irratian* ere ibili zela gogoratu du Arbelbidek, baita *Herria* aldizkarian ere. Eta Txillardegiren gidaritzapean egin ziren Euskal Idazkaritzako batzar bat bera ez omen zuen galdu. Gogoratu behar da 1964an Idazkaritza horretan landu zirela beranduago Arantzazuko biltzarrak hartuko zituen erabakiak.

Eta, azkenik, Paulo Agirrebaltzategi ohorezko euskaltzainak Joan Mari Torrealдай (Forua, Bizkaia, 1942 - Usurbil, Gipuzkoa, 2020) euskaltzain emerituaren ibilbidea izan du gogoan. Gauza guztien gaineratik, Torrealдай “euskal kulturaren gidaria eta behatzailea” izan dela esan du Agirrebaltzategik. “Kazetaria, idazlea, irakaslea, ikertzailea, kultur sustatzailea (...) Zenbait aldizkariren zuzendari (*Gure Izarra, Anaitasuna, Jakin*) eta kudeatzaile (*Euskaldunon Egunkaria, Jakin*) izan zela gogoratu du.

Produkzio izugarria utzi zuen, langile aparta zenez: “Liburuak eta artikulak zabal eta ugari: 24 liburu, 47 lankidetzeta, 517 artikulua, 3 itzulpen-lan, 2 edizio-lan... 13.614 orrialde denetara”, zehaztu du bere hitzaldian ohorezko euskaltzainak. Torrealdaik Euskaltzaindian egin zuen lana ere ez du ahaztu Agirrebaltzategik. Argitalpen-batzordeko kide eta Azkue liburutegiko bibliotekari akademiko izan zela gogoratu du, baita Euskaltzaindiaren historia idatzi zuela ere, Imanol Muruarekin batera...”.

Mintzaldiekin amaitzeko, hitza hartu du A. Urrutia euskaltzainburuak. Zendutako euskaltzainek euskara eta euskal kulturarekiko erakutsi zuten “konpromiso irmoa” azpimarratu du Urrutiak, eta goraiatu du euskara eta euskal kultura sustatzeko guztiek egin zuten ahalegin “izugarria”, eginiko ekarpen azpimarragarria.

Ekitaldiari 13:00etan amaiera eman zaio J. Goikoetxeak eta K. Mendizabalek interpretatutako Pedro Mari Otañoren *Donostiyako ziudadia* kantuarekin eta A. Urrutia euskaltzainburuaren esker oneko berbekin.

Andres Urrutia,  
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,  
Idazkaria